



OLATZ GARAMENDI LANDA ANDREAK, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU ETA JAURLARITZAREN IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT:

Gobernu Kontseiluak 2023ko uztailaren 26an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau onartu zuela:

ERABAKIA, ESPAINIAKO GOBERNUAREKIN ETA PASAIAKO UDALAREKIN HITZARMEN BAT IZENPETZEKO BAIMENA EMATEKOA, EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUTAKO NEXTGENERATION EU - SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO EGOITZA-BIRGAITZEAREN ETA ETXEBIZITZA SOZIALAREN ARLOKO LAGUNTZA-PROGRAMAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN GAUZATZEKO, PASAIA UDALERRIKO (GIPUZKOA) ANDONAEGI AUZOKO BIRGAITZE PROGRAMATUKO BIZITEGI-INGURUNEARI DAGOKIONEZ, ETA HITZARMEN HORREN BIDEZ BIDERATUTAKO ZUZENEO DIRULAGUNTZA EMATEKO BAIMENA EMATEKOA. (ESP. ZBK.: 2023/00804) (C/20230074)

COVID-19ak eragindako pandemiak krisi ekonomiko, sozial eta sanitarioa ekarri du. Erronka hain handia izaki, erantzun bateratua eman behar izan zaio Europan. Epe ertainera erantzuteko, asmo handiko suspertze-funts bat jarri da abian, COVID-19aren osteko munduan ekonomiak suspertzeko prozesuan laguntzeko, 2021etik aurrera.

Horren haritik, 2021eko urriaren 5ean, 853/2021 Errege Dekretua onartu zen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko laguntza-programak arautzen dituen bizitegiak birgaitzearen eta etxebizitza sozialak eraikitzearen arloan (aurrerantzean, 2021eko urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretua).

Hain zuzen ere, sinatuko den hitzarmen hau urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan kokatzen da. Errege-dekretu horren helburua da bizitegiak birgaitzearen eta etxebizitza sozialak eraikitzearen arloko programak arautzea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparru orokorrean, eta, zehazki, C02.I01 inbertsioei dagokienez («Bizitegi- inguruneen suspertze ekonomiko eta sozialerako birgaitze-programa»); hori 2. osagaian sartuta dago («Espainiako Hiri Agenda inplementatzea: Hiri Berroneratze eta Birgaitzerako Plana»). Horri dagokionez, komeni da eranstea Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak 67.477.620,00 euroko zenbatekoa eskualdatu diola Euskal Autonomia Erkidegoari, 2022ko urriaren 28ko eskualdatze- ebazpenaren bitartez, 2022ko irailaren 13an egindako Konferentzia Sektorialean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.



Zenbateko hori C02.I01 inbertsioaren 2022. urteari dagokio («Bizitegi-inguruneen suspertze ekonomiko eta sozialerako birgaitze-programa»).

Ondorioz, errege-dekretu horrek betetzen du Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean ezarritako mugarrak, C02.I01 inbertsioari buruzkoa («Bizitegi-inguruneen suspertze ekonomiko eta sozialerako birgaitze-programa»), zeina jasota baitago Kontseiluak 2021eko ekainaren 16an hartutako Betearazpen Erabakiaren eranskinaren CID 26 zenbakian; erabaki hori Espainiako suspertze eta erresilientziarako planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa da. Izan ere, promulgatutako errege-dekretua berritze- programa betearazteko arau-esparruari buruzkoa da, eta errege-dekretu horretan, alde batetik, arau-esparrua finkatuko da, energia primario ez berriztagarriaren kontsumoa batez beste % 30 murriztuko dela bermatzeari dagokiona, eta, bestetik, horretarako betekizun teknikoak ezarriko dira; hori berariaz tratatu zen 2021eko maiatzaren 26an egindako Etxebizitza, Hirigintza eta Lurzoruaren Konferentzia Sektorialean. Errege- dekretua promulgatuta, informazio publikoaren fasea osatu da, eta errege-dekretua izapidetzeari dagozkion gainerako lege-prozedurak egin dira. Horretaz gainera, CID26 mugari horrek, bere definizioan, errege-dekretu horretako programei laguntzeko diren PFEZeko pizgarriak arautzeko errege lege-dekretua argitaratzea jasotzen du.

853/2021 Errege Dekretuan araututako programen artean, 1. lerroa dago: <Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programa=. Errege-dekretu horren 9. artikuluan zehazten denez, aipatutako programaren bidez finantzaketa eman nahi da batera egiteko birgaitze-obra, nagusiki bizitegi-erabilera duten eraikinetan eta etxebizitzetan 3 familia bakarreko etxebizitzetan ere bai, eta espazio publikoak urbanizatzeko edo berrurbanizatzeko obra, Birgaitze Programatuko Bizitegi Inguruneak (BPBI) izeneko jarduketa-eremuetan, aldeaz aurretik mugatuta daudenetan, edozein biztanleria- tamainatako udalerrietan.

Horri dagokionez, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak eta Euskal Autonomia Erkidegoak, Aldebiko Jarraipen Batzordeak 2022ko martxoaren 28an hartutako erabakiaren bitartez, kalteberatasun-irizpideak ezarri dituzte, zeinak <Auzo- mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programa=ren esparruan (1. programa) aplikatuko baitira, bai eta laguntza gisa gehienez emango diren zenbatekoak ere.

Autonomia Estatutuaren 10.31 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari eskumen eskusiboa ematen dio lurralde-, itsasbazter-, hirigintza- eta etxebizitza-antolamenduaren arloan.

Dirulaguntza hau antolatzeke eskumena Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politika, Etxebizitza eta Garraio Sailari dagokio, hala xedatzen baita lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 11.1b) artikuluan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen dekretua) eta urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 10. artikuluan (Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretua), zehazki apartatu hauean:

o) Estrategiak lantzea, hiri berroneratzeko eta ondare eraikian esku hartzeko eskakizunak – Europar Batasuneko, Estatuko eta autonomia-erkidegoko xedapen eta zuzentarauetan jasota daudenak– lurralde-mailan aplika daitezen, epe labur, ertain eta luzera.

p) Sailak bultzatzen edo garatzen dituen hiri-berroneratzeko planak planifikatu eta garatzea eta horiei jarraipena egitea, lankidetzak publiko-publikoko edo publiko-pribatuko ekimenei dagokienez, programa propioen edo europarren esparruan.

Euskal Autonomia Erkidegoak Pasaia (Gipuzkoa) udal-mugartean dagoen “Andonaegi”ren Birgaitze Programatuko Bizitegi Ingurunea (BPBI) finantzatzeko eskatu du, “Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programa”ren barruan, 853/2021 Errege Dekretuan

ezarritakoaren arabera. Horrekin, eraikinen berritzea indartu nahi da, energia primario ez berriztagarria aurrezteko, haren kontsumoa gutxienez % 30 murriztuta.

Finantzaketa hori aurrekontu-partida honetan sartuta dago: 1000811000 112281.72100 2023/001079 (ANDONAEGI 5.843.472 euro).

Eremua EAEko 251 udalerriei eginiko «interes-kontsulta»tik jasotako erantzunetan oinarrituta aukeratu da; udalerrien artean, heldutasun-maila handienekoak aukeratu dira. Bestalde, nabarmendu behar da BPBI honetan jasotako etxebizitzak kalteberatasun- arrisku oso handiko eremuetako batean daudela, Eusko Jaurlaritzak eginiko Kalteberatasun Inbentarioaren arabera.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Pasaiaiko Udalak uste dute egiaztatuta geratzen direla interes publikoa eta muga sozial eta ekonomikoak, dirulaguntza horiek zuzenean adjudikatzeko premia justifikatzen dutenak, ezin direlako dagoeneko gauzatu den lehia publikoko prozesuaz bestelako baten mende jarri, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 c) artikuluan ezarritakoa betez.

Gehitu behar da betetzen direla 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak, eta, bereziki, dekretu horren 10. artikuluan ezarritakoak (eremuaren lurralde-mugaketari eta etxebizitzarako bizitegi-erabilerarako eraikigarritasun-mugei buruzkoak) eta 12. artikuluan ezarritakoak (BPBIa kudeatzeko akordioari buruzkoak).

Azkenik, kontuan hartu da Euskal Autonomia Erkidegoaren 2023. ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legean xedatutakoa, eta, zehazki, II. tituluko V. kapituluan ezarritakoa (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako funtsak kudeatzea).

Legezketasun-kontrolari eta ekonomia- eta zerga-esparruko kontu-hartzailetzaren kontrolari buruzko irizpenak aldekoak izan direnez, bidezko da proposamena Gobernu Kontseilura helaraztea, baimena eman dezan, Gobernuari buruzko Legearen 18.e) artikuluen arabera.

Ondorioz, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposatuta, eta gaia eztabaidatu ondoren, Gobernu Kontseiluak erabaki hau hartu du 2023ko uztailaren 26an egindako bilkuran:

ERABAKIA:

«Lehenengoa.- Baimena ematea Pasaiaiko Udalari zuzeneko dirulaguntza bat emateko, bost milioi zortziehun eta berrogeita hiru mila lauhun eta hirurogeita hamabi eurokoa (5.843.472 €), Pasaiaiko udalerrian (Gipuzkoa) dagoen Andonaegi auzoa birgaitzeko.

Bigarrena.- Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18 e) artikuluan xedatuarekin bat etorritik, baimena ematea Espainiako Gobernuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Pasaiaiko Udalaren artean hitzarmen hau sinatzeko: Europar Batasunak finantzaturako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (Next Generation EU-Euskal Autonomia Erkidegoa) jasotako laguntza-programak gauzatzea bizitegiak birgaitzearen eta etxebizitza sozialak eraikitzearen arloan, Pasaiaiko udalerrian (Gipuzkoa) dagoen Andonaegiren birgaitze programatuko bizitegi-inguruneari dagokionez. Horrek ekarriko du Pasaiaiko Udalari bost milioi zortziehun eta berrogeita hiru mila lauhun eta hirurogeita hamabi euro (5.843.472 €) ematea, eta, horretarako,

1000811000 112281.72100 2023/001079 aurrekontu-aplikazioa hornitu da, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2023ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorren kontura gaituta.

Hirugarrena.- Andonaegi auzoa birgaitzeko jarduerak eragiten duten kostua finantzatzeko bakarrik erabil dezake Pasaiaiko Udalak ekarpenaren zenbatekoa. Zenbateko hori honela ordainduko da:

- 2.921.736,00 €, hitzarmena formalizatu ondoren.
- 1.460.868,00 €, 2024ko abenduaren 31 baino lehen.
- 1.460.868,00 €, finantzaketaren xede diren jarduketa guztiak bukatu direla frogatzen duten dokumentuak egiaztatu ondoren. Jarduketa horiek 2025eko azaroaren 31 baino lehen bukatuta egotea aurreikusten da. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioko sailburuari baimena ematen zaio urterokoen doikuntzak onartzeko —beharrezkoak badira hirugarren zenbateko honen ordainketa aipatutako egiaztapenaren unera moldatzeko—, betiere jarduketak 2026ko ekainaren 30a baino lehen bukatzen eta justifikatzen badira.

Laugarrena.- Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren zuzendariari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren izenean adostasuna emateko eta hitzarmena sinatzeko.

Bosgarrena.- Gobernu Idazkaritzak lankidetzak-hitzarmenaren testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko aginduko du».

ERANSKINA

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Vitoria-Gasteizen, sinadura digitalaren egunean.

OLATZ GARAMENDI LANDA, CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIA DEL GOBIERNO

CERTIFICO:

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 26 de julio de 2023, adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

ACUERDO POR EL QUE SE AUTORIZA LA SUSCRIPCIÓN DE UN CONVENIO CON EL GOBIERNO DE ESPAÑA Y EL AYUNTAMIENTO DE PASAIA EN RELACIÓN CON LA EJECUCIÓN DE LOS PROGRAMAS DE AYUDA EN MATERIA DE REHABILITACIÓN RESIDENCIAL Y VIVIENDA SOCIAL DEL PLAN DE RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y RESILIENCIA – FINANCIADO POR LA UNIÓN EUROPEA – NEXTGENERATION EU EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO, RELATIVO AL ENTRONO RESIDENCIAL DE “ANDONAEGI”, EN EL MUNICIPIO DE PASAIA (GIPUZKOA), Y SE AUTORIZA LA CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN DIRECTA INSTRUMENTADA A TRAVÉS DEL CITADO CONVENIO. (N. EXP.: 2023/00804) (C/20230074)

La pandemia provocada por la COVID-19 ha supuesto una crisis económica, social y sanitaria. La magnitud del desafío ha exigido una respuesta común a escala europea. Para dar respuesta a medio plazo, se ha puesto en marcha un ambicioso Fondo de Recuperación para contribuir al proceso de reconstrucción de las economías en el mundo post-COVID-19, a partir de 2021.

En este contexto, el 5 de octubre de 2021, se aprobó el Real Decreto 853/2021, por el que se regulan los programas de ayuda en materia de rehabilitación residencial y vivienda social del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (en lo sucesivo Real Decreto 853/2021, de 5 de octubre de 2021).

Precisamente, este convenio a suscribir se enmarca en el Real Decreto 853/2021, de 5 de octubre, que tiene por objeto regular los programas de ayuda en los ámbitos de la rehabilitación residencial y construcción de vivienda social, dentro del marco general del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia y, específicamente, en relación con las inversiones C02.I01 «Programa de rehabilitación para la recuperación económica y social en entornos residenciales», incluida dentro del componente 2 «Implementación de la Agenda Urbana española: Plan de rehabilitación y regeneración urbana». A este respecto, resulta oportuno añadir que el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana ha transferido a la Comunidad Autónoma de País Vasco, mediante la resolución de transferencia de fecha 28 de octubre de 2022, la cantidad de 67.477.620,00 €, correspondiente a la anualidad 2022 de la Inversión C02.I01 «Programa de

rehabilitación para la recuperación económica y social en entornos residenciales», una vez que ha quedado acreditado el cumplimiento de los requisitos establecidos en la Conferencia Sectorial celebrada el 13 de septiembre de 2022.

En consecuencia, este Real Decreto cumple con el hito establecido en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, relativo a la inversión C02.I01 «Programa de rehabilitación para la recuperación económica y social en entornos residenciales» recogido en el número CID 26 del anexo a la Decisión de Ejecución del Consejo, de 16 de junio de 2021, relativa a la aprobación de la evaluación del plan de recuperación y resiliencia de España, en cuanto a la promulgación de un real decreto sobre el marco normativo de la ejecución del programa de renovación que fije el marco normativo y establezca los requisitos técnicos para garantizar el cumplimiento de la reducción media del 30 % del consumo de energía primaria no renovable, habiéndose tratado específicamente en la Conferencia Sectorial de Vivienda, Urbanismo y Suelo celebrada el 26 de mayo de 2021 y una vez completada la fase de información al público y demás procedimientos legales de tramitación propios de real decreto. Adicionalmente, este hito CID26 incluye en su definición, la publicación del real decreto-ley que regule los incentivos en el IRPF para apoyar a los programas de este Real Decreto.

Entre los diferentes Programas regulados en el Real Decreto 853/2021, se halla la línea 1 denominada <Programa de ayuda a las actuaciones de rehabilitación a nivel de barrio=. Tal y como precisa el artículo 9, dicho Programa <tiene como objeto la financiación de la realización conjunta de obras de rehabilitación en edificios de uso predominante residencial y viviendas, incluidas las viviendas unifamiliares, y de urbanización o reurbanización de espacios públicos dentro de ámbitos de actuación denominados Entornos Residenciales de Rehabilitación Programada (ERRP) previamente delimitados en municipios de cualquier tamaño de población=.

A este respecto, el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana y la Comunidad Autónoma del País Vasco han establecido mediante acuerdo de la comisión bilateral de seguimiento de 28 de marzo de 2022, los criterios de vulnerabilidad a aplicar en el marco del <Programa de ayuda a las actuaciones de rehabilitación a nivel de barrio= (Programa 1), así como las cuantías máximas de ayuda correspondientes.

El artículo 10.31 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco atribuye a la Comunidad Autónoma competencia exclusiva en materia de ordenación del territorio y del litoral, urbanismo y vivienda.

Por su parte, la competencia para articular la presente subvención corresponde al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes en aplicación de lo dispuesto en el artículo 11.1.b) del Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y en el artículo 10 del Decreto 11/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, concretamente en los siguientes apartados:

- o) Elaborar estrategias orientadas a la aplicación a nivel territorial de las exigencias de regeneración urbana e intervención en el patrimonio edificado, a corto, medio y largo plazo, recogidas en las disposiciones y directivas comunitarias, estatales y autonómicas.
- p) Planificación, desarrollo y seguimiento de planes de regeneración urbana que impulse o desarrolle el Departamento, en iniciativas de colaboración público-público o público-privado, en el marco de programas propios o europeos.

La Comunidad Autónoma del País Vasco ha solicitado la financiación del Entorno Residencial de Rehabilitación Programada (ERRP) de <Andonaegi=, situado en el término

municipal de Pasaia (Gipuzkoa), dentro del <Programa de ayuda a las actuaciones de rehabilitación a nivel de barrio=, conforme a lo establecido en el Real Decreto 853/2021. Con ello, se pretende potenciar la renovación de los edificios consiguiendo un ahorro mínimo de al menos un 30% de energía primaria no renovable.

Dicha financiación se halla incorporada en la partida presupuestaria siguiente: 1000811000 112281.72100 2023/001079 (ANDONAEGI 5.843.472 euros).

El ámbito ha sido seleccionado a partir de las respuestas recibidas a la <Consulta de Interés= realizada a los 251 municipios de Euskadi, entre las que se han seleccionado las que mayor grado de madurez tenían. Por otra parte, hay que destacar que las viviendas incluidas en el presente ERRP se encuentran en uno de los ámbitos en situación de riesgo de Vulnerabilidad Muy Alto, de acuerdo con el Inventario de Vulnerabilidad realizado por el Gobierno Vasco.

En consecuencia, tanto la Comunidad Autónoma como el Ayuntamiento de Pasaia consideran que queda acreditado el interés público y las limitaciones de carácter social y económico que justifican la necesidad de que estas subvenciones sean concedidas de forma directa, por no poder someterse a un proceso de pública concurrencia adicional al ya realizado, respetando lo establecido en el artículo 22.2 c) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Así mismo, cabe añadir que se cumplen con los requisitos establecidos en el Real Decreto 853/2021, y en particular con los establecidos en el artículo 10 del mismo, relativos a la delimitación territorial del Área y a los límites de edificabilidad destinada al uso residencial de vivienda, y en el artículo 12, relativos al acuerdo para la gestión del ERRP.

Finalmente, cabe añadir que se atiende a lo dispuesto en la Ley 15/2022, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2023, en concreto a lo establecido en el Título II, Capítulo V Gestión de los fondos vinculados al Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

Habiéndose emitido los informes favorables de control de legalidad y de control interventor económico-fiscal, procede su elevación al Consejo de Gobierno para su autorización, de conformidad con el artículo 18.e) de la Ley de Gobierno.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, y previa la correspondiente deliberación, en la sesión celebrada el día 26 de julio de 2023, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

ACUERDO:

«Primero.- Autorizar una subvención directa al Ayuntamiento de Pasaia por un importe de cinco millones ochocientos cuarenta y tres mil cuatrocientos setenta y dos euros (5.843.472 €) destinado a la rehabilitación del barrio de Andonaegi sito en el municipio gipuzkoano de Pasaia.

Segundo.- Autorizar, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 18 e) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, la suscripción del Convenio entre el Gobierno de España, la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Ayuntamiento de Pasaia, en relación con la ejecución de los programas de ayuda en materia de rehabilitación residencial y vivienda social del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia - financiado por

la Unión Europea – Next Generation EU en la Comunidad Autónoma del País Vasco relativo al entorno residencial de rehabilitación programada de Andonaegi en el municipio de Pasaia (Gipuzkoa), lo que supondrá una aportación económica al Ayuntamiento de Pasaia de cinco millones ochocientos cuarenta y tres mil cuatrocientos setenta y dos euros (5.843.472 €), para lo que se ha dotado a la aplicación presupuestaria 1000811000 112281.72100 2023/001079, habilitada con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2023.

Tercero.- El importe de la aportación solo podrá destinarse por el Ayuntamiento de Pasaia a la financiación del coste derivado de la ejecución de las actividades de rehabilitación del barrio de Andonaegi y se abonará de la siguiente forma:

- 2.921.736,00 € tras la formalización del convenio.
- 1.460.868,00 € antes del 31 de diciembre de 2024.
- 1.460.868,00 € previa verificación de la documentación acreditativa de la finalización completa de las actuaciones objeto de financiación, prevista realizar antes del 31 de noviembre de 2025. Se autoriza al Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes a aprobar los reajustes de anualidades que sean precisos para acomodar el abono de este tercer importe al momento de la citada verificación, siempre que las actuaciones finalicen y se justifiquen antes del 30 de junio de 2026.

Cuarto.- Autorizar al Director de Planificación Territorial y Agenda Urbana para prestar su consentimiento en nombre de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y para suscribir el Convenio.

Quinto.- Por la Secretaría del Gobierno se ordenará la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del texto del Convenio de colaboración».

ANEXO

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación, en Vitoria-Gasteiz, en la fecha de su firma digital.

ALDEBIKO BATZORDEAREN X. ERABAKIA, 2023KO XXXREN XX(E)AN EGINDAKO SAIOAN HARTUA, PASAIAKO UDALERRIKO «ANDONAEGI» BIRGAITZE PROGRAMATUKO BIZITEGI-INGURUNEARI BURUZKOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN NEXTGENERATIONEU EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO EGOITZA-BIRGAITZEAREN ETA ETXEBIZITZA SOZIALAREN ARLOKO LAGUNTZA-PROGRAMAK GAUZATZEARI BURUZKOA.

2023ko XXXaren XX(a)

TELEMATIKOKI BILDU DIRA

Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren izenean, Francisco Javier Martín Ramiro jauna, Etxebizitza eta Lurzoruaren zuzendari nagusia, hura izendatzea xedatzen duen otsailaren 11ko 355/2020 Errege Dekretuaren arabera, eta Aldebiko Jarraipen Batzordearen buru gisa, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 71.3 artikuluan ezarritakoaren babesean (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko laguntza-programak arautzen dituen etxebizitzak birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloan).

Euskal Autonomia Erkidegoaren izenean, Ignacio de la Puerta Rueda jauna, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren zuzendaria, hura izendatzea xedatzen duen urtarrilaren 26ko 43/2021 Dekretuaren arabera, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 71.3 artikuluan ezarritakoaren babesean jardunez.

Pasaiaiko Udalaren izenean, Teo Alberro Bilbao jauna, alkate gisa, 2023ko ekainaren 17ko Osoko Bilkura Berezian hartutako erabakiaren arabera, aipatutako 853/2021 Errege Dekretuaren 12.2 artikuluan ezarritakoaren babesean jardunez.

ADIERAZTEN DUTE

1. Arestian aipatutako 853/2021 Errege Dekretuak, beste laguntza batzuen artean, honako hau arautzen du: Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko –Next Generation EU– «Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programa». Plan horren xedea da finantzaketa ematea batera egiteko nagusiki bizitegi-erabilera duten eraikinetako eta etxebizitzetako –familia bakarreko etxebizitzak barne– birgaitze-obra eta -jarduketak eta Birgaitze Programatuko Bizitegi Inguruneak (BPBI) izeneko jarduketa-esparruen barruko espazio publikoak –alde zuzenetik mugatuta daudenak edozein biztanleria-tamainako udalerrietan– urbanizatzeko edo berrurbanizatzeko lanak.
2. Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak 2022ko urriaren 28ko transferentzia-ebazpenaren bidez, 67.477.620,00 € transferitu dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari, «Bizitegi-inguruneetan ekonomia eta gizarte berreskuratzeko birgaitze-

programa» izeneko C02.I01 Inbertsioaren 2022. urteari dagokiona, 2022ko irailaren 13an egindako Konferentzia Sektorialean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.

Horrez gain, aipatutako kreditu-transferentziaren ebazpenetan, Autonomia Erkidegoak programen kudeaketan dituen betebeharrak jasotzen dira, eta horien artean dago irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan (kudeaketa-sistema konfiguratzen duena) eta irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan (Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituen, mugarriak eta helburuak betetzen diren jarraipena egiteko, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien aurrekontua eta kontabilitatea betearazteko) araututako zeharkako printzipioak betetzea. Proposatutako jardueri dagokienez, Autonomia Erkidegoak adierazten du betebeharrak betetzen direla zainduko duela, bai zuzenean, bai betearazteaz arduratzen diren erakunde betearazleentzat.

3. Euskal Autonomia Erkidegoak Pasaiaiko «Andonaegi» Birgaitze Programatuko Bizitegi Ingurunean (BPBI) jarduketak finantzatzea eskatu du, «Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programaren» barruan, 853/2021 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.
4. Euskal Autonomia Erkidegoak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c) artikuluan ezarritakoa betez, dirulaguntzak emango dizkio zuzenean Pasaiaiko Udalari ondorengo arrazoiengatik (artikulu horretan aurreikusitak).

Eremua EAEko 251 udalerriei eginiko «interese-konsultari» buruz jasotako erantzunetan oinarrituta aukeratu da; udalerrien artean, helduei-erantzunak aukeratu dira. Bestalde, nabarmendu behar da BPBI honetan jasotako etxebizitzak kalteberatasun-arrisku oso handiko eremuetako batean daudela, Eusko Jaurlaritzak eginiko Kalteberatasun Inbentarioaren arabera.

Ondorioz, bai Euskal Autonomia Erkidegoak bai Pasaiaiko Udalak uste dute egiaztatuta geratzen direla interes publikoa eta muga sozial eta ekonomikoak, dirulaguntza horiek zuzenean adjudikatzeko beharra justifikatzen dutenak, ezin direlako dagoeneko gauzatu den lehia publikoko prozesuaz bestelako baten mende jarri.

5. Proposamenaren, birgaitze-bulego bat sortzea aurreikusten da, BPBIan programatutako jarduketak kudeaketa eta garapena errazteko.
6. Euskal Autonomia Erkidegoak adierazten du jarduketak 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako betebeharrak betetzen dituela, eta, bereziki, errege-dekretu horren 10. artikuluan (eremuaren lurralde-mugaketari eta etxebizitzarako bizitegi-erabilerrako eraikigarritasun-mugei buruzkoa) eta 12. artikuluan ezarritakoak (BPBIak kudeatzeko akordioari buruzkoa).
7. Administrazio sinatzaileek beharrezkoa irizten diote akordio honen xede den eremu mugatuko jarduketak finantzatzeari, eraikinak berritzea sustatu, eta gutxienez energia primario berriztaezinean % 30 aurrezteko lortzeko.

Arestian azaldutako aurrekariak aztertu dira, eta urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 9. artikuluan eta ondorengoaren arabera («Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programari» buruzkoak), hau:

ADOSTU DUTE

Lehenengoa. Laguntzen xede izango den BPBla definitzea.

Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoa betez, akordio honen bitartez «Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programako» (1. programa) dirulaguntzaren xede izango den BPBla definitzen da.

«Andonaegiko» BPBlak 395 etxebizitza, 30 eraikin eta 1,99 hektarea ditu. Eraikin horiek kaleen eta atarien erreferentzien bidez identifikatu dira, Pasaia Udalak dagokion dokumentazioaren zati gisa aurkeztutako mugaketa kartografikoan oinarrituta:

Kalea	Atariak
Bidasoa kalea	2, 4, 6, 8 eta 10
Igeldo kalea	2, 4, 6, 8 eta 10
Oiartzun kalea	2, 4, 6, 8, 10, 12 eta 14
Andonaegi kalea	2, 4, 6, 8, 10, 12 eta 14
Urgull kalea	2, 4, 6, 8, 10 eta 12

Mugatutako eremuaren barruan, guztira 1,33 hektarea okupatzen dituzten, Pasaia Udalak onartutako eraikinen “SAKONEKO BIRGAITZE jarduketetarako laguntza programa”-ra lotutako 200 etxebizitzaren birgaitzea programatu da. Horretarako, jarduketaren guztizko kostua 14.881.458,33 €-koa izango dela aurreikusi da (BEZa barne), eta diruz lagun daitekeen inbertsio bat, 8.947.805,07 €-ko «Auzo mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programaren» barruan laguntza eskatzen duena, honako kontzeptu hauetan banakatuta:

1. programa: Diruz lagun daitekeen inbertsioa	
Eraikinak birgaitzea (0,00 € barne hartzen ditu amiantoa kentzeko)	7.135.152,55 €
Hiria lehengoratzeko	1.303.445,50 €
Birgaitze Bulegoa	509.207,02 €
GUZTIRA	8.947.805,07 €

Bigarrena. Energia-helburuak.

Akordio honen xede den BPBla osatzen duten eraikinak birgaitzeko jarduketan, energia primario berriztaezinaren kontsumoa % 60 baino gehiago murriztea aurreikusten da.

Hirugarrena. Jarduketak finantzatzea.

Jarduketak jarraian ezarritakoaren arabera finantzatuko dira; hain zuzen, ekarpenei dagozkien urterokoak ezarriko dira.

- Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak eskualdatutako funtsen kargura, 2022ko urriaren 28ko eskualdatze-ebazpenaren bidez eta «Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programaren» barruan (1. programa), programa horretan diruz lagun daitekeen inbertsioan sartutako kostuen **5.843.472,00 €** finantzatuko da gehienez, honela banakatuta:

Eraikinak birgaitzea	Oinarrizko laguntza	5.041.472,00 €
	Amiantoa kentzea	0,00 €
	Kalteberatasun-plusa	0,00 €
Hiria lehengoratzeko		642.000,00 €
Birgaitze Bulegoa		160.000,00 €
GUZTIRA		5.843.472,00 €

Dirulaguntzaren helburua da Pasaia «Andonaegi» auzoko etxebizitza-eraikinak birgaitzea, 853/2021 Errege Dekretuak eskatutako betebeharren arabera.

Dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehazteko, dirulaguntzaren xedea betetzen duten eta benetan birgaituta dauden etxebizitzak kopurua hartuko da kontuan, 853/2021 Errege Dekretuaren 15. artikuluan ezarritako laguntzaren gehieneko zenbatekoaren eta dirulaguntzaren gehieneko ehunekoaren irizpideei jarraituz.

- Euskal Autonomia Erkidegoak 8.000.000,00 € finantzatzeko konpromisoa hartzen du, 2022. (1.100.000,00 €), 2023. (3.016.270,00 €), 2024. (2.300.000,00 €) eta 2025. (1.583.730,00 €) urteetan egin beharreko ekarpenen bidez, jarduketaren gauzatze-mailaren arabera.
- Pasaia Udalak 661.445,50 € finantzatzeko konpromisoa hartzen du, 2022. (61.445,50 €), 2023. (200.000,00 €), 2024. (200.000,00 €) eta 2025. (200.000,00 €) urteetan egin beharreko ekarpenen bidez. Urterokoen banaketa hori gutxi gorabeherakoa da, eta jarduketaren gauzatze-mailaren arabera biriditu egin ahal izango da.
- Partikularrek 376.540,83 €-ko ekarpena egingo dute, dagozkien urterokoetan, jarduketaren gauzatze-mailaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoak agiri hau sinatuz egiaztatzen du diruz lagundu daitezkeen jarduketaren kostuak guztira, tributatuak kontuan hartu gabe, ez dituela gaindituko autonomia-erkidego horri dagozkien jarduketaren horien merkatuko batez besteko kostuak.

Laugarrena. Programako laguntzak emateko prozedura. Programaren kudeaketa.

«Andonaegi» BPBla birgaitzeko jarduketarako laguntzak zuzeneko prozeduraren bidez emango zaizkio Pasaia Udalari.

Pasaia Udalak izango da BPBko jarduketaren arduraduna.

Pasaia Udalak birgaitze-bulegoko zerbitzuak emango ditu, eta programatutako jarduketaren kudeaketa eta garapena erraztuko ditu, ingurune fisikoa urbanizatzeko, berrurbanizatzeko edo hobetzeko obrak egingo ditu, eta higiezinak birgaitzeko jarduketak bultzatuko ditu.

Bosgarrena. Autonomia-erkidegoaren konpromisoa.

Euskal Autonomia Erkidegoak urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan jasotako konpromiso guztiak bete beharko ditu, eta, bereziki, dirulaguntza osoa ordaindu aurretik egiaztatu beharko du jarduketak erabat amaitu direla eta azken hartzaileek dirulaguntzaren xede diren laguntzak eta aipatutako Errege

Dekretuan ezarritako betebeharrak bete dituztela. Horretarako, beharrezkoak diren egiaztagiriak bildu beharko ditu.

Era berean, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) esparruan ezarritako baldintza guztiak onartzen ditu. Konpromisoa hartzen du Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioari SEEPen esparruan, Europako edo Estatuko araudiarekin bat, eska daitekeen beste edozein txosten edo egiaztagiri aurkezteko, bai eta eskatzen zaion informazioa emateko ere, planaren kudeaketa- eta jarraipen-sistema egokia betetze aldera.

Seigarrena. Akordioaren jarraipena.

Akordio honetan jasotako jarduketak jarraipena Aldebiko Jarraipen Batzordeak egingo du, honako hauetan ezarritakoaren arabera: urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 72. artikulua, HFP/1030/2021 Agindua (irailaren 29koa, SEEP kudeatzeko sistema eratzen duena) eta HFP/1031/2021 Agindua (irailaren 29koa, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren atalaren neurrien mugari eta helburuak zenbateraino betetzen diren jakiteko jarraipena egiteko eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko).

Arestian aipatutakoa gorabehera, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak obra eta jarduketak gauzatzeko egiaztatze beharrezkoak diren egiaztapenak, bisitak eta jarduketak egin ahal izango ditu, bai eta akordio honetan hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatze beharrezkoak ere.

Halaber, Aldebiko Jarraipen Batzordeak sor daitezkeen gertakizunen aurrean beharrezkoak diren aldaketak egin ahal izango ditu akordio honetan, jarduketak osorik gauzatzen direla bermatzeko, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 71.3 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Zazpigarrena. Akordioaren iraupena.

Euskal Autonomia Erkidegoak eta Pasaia Udalak konpromisoa hartzen dute finantzatzeko diren jarduketak 2026ko ekainaren 30erako amaituta egongo direla, eta jarduketak amaitu direla eta dirulaguntzaren xedea bete dela dioten egiaztapenak aurkeztuko dizkiola Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioari, 2026ko abenduaren 31 baino lehen.

Alderdiak akordio hau betetzeko bere gain hartutako betebeharrak jarduerak amaitzeko eta justifikatzeko adierazitako alditik harago iraungo dute, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) esparruan hartutako konpromisoak eta helburuak bete ahal izateko, beharrezkoa denaren arabera, eta planak eta errege-dekretu horrek etxebizitzak birgaitzearen eta etxebizitzaren sozialak eraikitzearen arloetan ezarritako helburuak betetzeko.

Zortzigarrena. Eranskinak.

- «Andonaegi» BPBlaren laburpen-fitxa.
- BPBlaren osatzen duten higiezin mugaketa jasotzen duten planoak.

Sinadura honek balio juridikoa izan dezan, erakunde sinatzaile bakoitzak akordio honen edukia gauzatzeko nahitaezkoak diren ebazpenak izapidetu eta onartu beharko ditu bere organo eskudunen aurrean.

Aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, bertaratuek dokumentu hau sinatu dute adierazitako egunean.

ETXEBIZITZA ETA LURZORUAREN ZUZENDARI
NAGUSIA

LURRALDE PLANGINTZAREN ETA HIRI AGENDAREN
ZUZENDARIA

FRANCISCO JAVIER MARTÍN RAMIRO JAUNA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA JAUNA

PASAIKO ALKATEA

TEO ALBERRO BILBAO JAUNA

“Andonaegi. Pasaia” BPBI-AREN LABURPEN-FITXA.

0. BPBI-A IDENTIFIKATZEA		
Autonomia-erkidegoa.	EAE	
Probintzia.	GIPUZKOA	
Udalerría.	PASAJA	
BPBIaren izena.	Andonaegi	
Zona klimatikoa.	D1	
HBBJ edo antzekoren bat dagokio.	BAI	
1. DATU OROKORRAK		
Erantzuna		Iruzkina
Oinarrizko datuak:		
Fremua jarraitua edo etena da.	Jarraitua	Hautatutako eremuan 395 familia-etxebizitza (Proiektuari 200 gehitzea espero da) eta 102 merkataritza-lokal daude, baina horietako gutxiak dute jardueraren bat une honetan. Multzo hori bloke linealean eraikita dago, eta 70eko hamarkadan eraiki zen, Trintxer Plan Partzialean oinarrituta. Horren ondorioz, 30 atari eraiki ziren, bost banda paralelotan antolatuta.
Mugaturako eremuak birgaitu nahi direnak baino etxebizitza gehiago baditu, mesedez, bete datuak jarraian; bestela (eremuak birgaitu nahi diren etxebizitzak baino ez izatea), pasa zuzenean 18. errenkadara:		
Eremuaren hektarea kopurua.	1,99	
Eremua osatzen duten eraikinen kopurua, guztira.	30	
Eremua osatzen duten etxebizitzaren kopurua, guztira.	395	
ONDOREN, OSATU INFORMAZIOA EGINGO DEN JARDUKETAREN DATUEKIN BAKARRIK:		
Jardutea aurreikusten den eremuaren hektarea-kopurua.	1,33	Zenbatespen proportzionala, jardun beharreko eraikin kopuruaren arabera.
Birgaitzea aurreikusten den eraikin kopurua.	20	
Eremua osatzen duten etxebizitzaren kopurua (adierazi soilik birgaituko direnak):	200	
Eremuan sartzea eta birgaitzea aurreikusten den etxebizitza publikoen kopurua.	0	
Eremuan sartzea eta birgaitzea aurreikusten den etxebizitza pribatuaren kopurua.	200	
Merkataritza-erabilerarako edo beste erabilerara batzuetarako sestra gaineko metro koadroak, kasuan kasuko eraikina jarraituz gauzatzeko kostuen parte badira.	3.966,00	
OD helburuak:		
27. Helburua. Birgaitu nahi diren eremuko etxebizitzaren kopurutik, zenbat uste da obrak amaituta eta justifikatuta egongo direla 2023ko abenduaren 31n?	0	
29. Helburua. Birgaitu nahi diren eremuko etxebizitzaren kopurutik, zenbat uste da obrak amaituta eta justifikatuta egongo direla 2026ko ekainaren 30ean?	200	
Eremuan aurreikusten diren jarduketak:		
Esku-hartzean, irisgarritasun-, kontserbazio- eta/edo mantentze-jarduketarik aurreikusten da?	BAI	Energia-efizientzia: Neurri pasiboak eta aktiboak; Irisgarritasuna; EITen arabera beste jarduketa batzuk
Ingurunea urbanizatzeko, berrurbanizatzeko eta hobetzeko jarduketak aurreikusten dira?	BAI	Uraren izaera eta zikloan oinarritutako soluzioekin berrurbanizatzeara
BPBIrako birgaitze-bulegoa sortzea aurreikusten da?	BAI	Sortuta dago eta funtzionatzen du
Jarduketaren heldutasuna:		
Esku-hartzearen helste-maila:	Handia	Atari guztien aurreproiektu bat du, ondo dokumentatua, eta jabeen erkidegoek proiektuari atxikitzeko erabakia hartzeko fasean dago.
Esku-hartzearen helste-maila altua bada, adierazi diruz lagundu daitezkeen jarduketaren obren hasiera-data.	23-12-01	
Kalteberatasun ekonomikoak:		
BPBIko jabeentzako kalteberatasunagatik laguntza osagarririk ematea aurreikusten da?	EZ	
Adierazi kalteberatasun ekonomikoaren irizpidea.	Aldebiko Batzordearen 2. Akordioan jasotakoa, 2022ko martxoaren 28koa	
Kalteberatasun-irizpidea betetzeagatik laguntza osagarria jasoko duten jabeen ehuneko zenbatetsia.	% 0,00	
Kutsadura prebenitu eta kontrolatzea:		
Ba al dago amiantorik eremuko eraikinetan?	EZ	
Kudeatzeko eta egikartzeko prozedura:		
Azaldu jarduketak garatzera bideratutako laguntza emateko prozedura.	Zuzeneko kontzesioa	Jarduketak onartzen dituzten erkidegoei zuzeneko emakida, Udalak egindako deialdian eskaera aurkeztu ondoren. Deialdiaren oinarri arautzaileak gainerako eremuekin komunak izango dira. Birgaitze Bulegoak kudeatzen ditu laguntzak. Lan teknikoen eta obren lizitazioan, Eusko Jaurlaritzako Hiri Berroneratze Zerbitzuak eta udal-teknikariek egindako baidintza-agiri komunak erabiliko dira, aurkeztu diren eskaintzak baloratzeko. Adjudikazio-proposamenaren txostena egingo da, eta jabeen erkidegoek txosten horri jarraitu behar diote. Birgaitze Bulegoak onuradunel lagunduko die prozesuan.
Laguntza emateko prozedura jarduketaren batean "zuzeneko emakidagatik" bada, testua osatu zuzeneko emakidaren prozedura justifikatzen duten arrazioekin, DLOren 22.2 artikulua.	Euskal Autonomia Erkidegoak, Euskadiko 251 udalerriek "intereseko kontsulta" egin ondoren, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 artikulua zuzeneko emango dizkio dirulaguntzak Pasaia Udalari, zuzenean ematea justifikatzen duten muga sozial eta ekonomikoak direla eta; izan ere, ezin da dagoeneko egindakoak gain beste lehia-prozesurik egin. Era berean, hautatutako eremua kalteberatasun oso handiko arrisku-egoeran dauden eremuen artean dago, Eusko Jaurlaritzak egindako Kalteberatasun Inbentarioaren arabera, eta, beraz, justifikatu egiten da horien jabeek zuzenean ematea, interes publiko, sozial eta humanitarioko arrazoiengatik.	

“Andonaegi. Pasala” BPBI-AREN LABURPEN-FITXA.

2. BPBI-AREN BALDINTZAK	Erantzuna	Iruzkina
